

M - 13415

A.T.V.

R. - 6720

5161

Zeruko argi berria.—1.





ZERUKO ARGI BERIA

L.G.M.



СВЯТОГО АЛЕКСИЯ

ОГР

(13.)

ZERUKO ARGI BERIA

Goizeko jarduera — Meza
santua — Bezperak — Guru-
tze-bidea — Aitortzeko eta
Jaunartzeko otoitzak, eta
— — beste asko. — —

L-M'tar I'k ipiñiak.

Gazteiz'ko Gotzai Jaunaren balmenaz.

ANER DIA DRAMA

BILLBARENA DA.

OBISPADO DE VITORIA

Vitoria 14 de Mayo de 1903.

Vista de la censura favorable de nuestro Arcipreste de Tolosa, que ha examinado el Devocionario *Eskaldi aukeratuak edo Padua'ko Antonio Santuari egiteko orazio egokiak*¹ indicado en esa instancia, concedemos la licencia que en la misma se solicita para su impresión y publicación.

El Obispo de Vitoria.

Sr. D. Eusebio López.

TOLOSA.

¹ Liburu ontatik dago aterea

ZERUKO ARGI BERRIA.





KRISTAU ONAREN GOIZA.

Irukoitz txit Santuari Otoitza.

Bedeinkatua izan
bedi Irukoitz guztiz
doatsua, Aita, Se-
mea ta Espiritu San-
tua, iru persona ba-
nak eta egizko Jaun-
goiko bakarbat; nere
ibilerak zuzenduitza-

tzu, gaitz guzietatik aldendu, Ama Birji-ñaren bitartekotasunaren bidez zerua iritxi dezadan. Ala izan bedi.

Goizeko Otoitza.

Jesukristo'k Betiko Aitari otoitza belaunikaturik egin bazion, nola jaŕi bearko da pekataria Jau-naren auŕean, berari agur egiteko?

Aitaren, eta Se-
mearen eta Espiritu
Santuaren izenean.
Alaxen.

Aguŕa.

Nere Jaungoikoa!
zure auŕean nik gauz
guzien jaun ta jabe-
tzat ezagutzen zai-
tut; eta bear dan be-
girapen guziz ezpa-
da, al dedanaz bein-
tzat, maitatzen zai-
tut.

Etxetik ateratzean.

Jauna; nere ibile-rak zuzendu itzatzu,
eta *ez nazazula* utzi zugandik pekatuaz aldentzen.

Elizan sartzean.

Jauna, zure etxe santuan sartu naiz;
eta zure izena mai-tatuko det.

Ur bedeinkatua artzean.

Ur bedeinkatu au nere pekatuen bar-

kapenerako izan dedila.

Jesus Sakramentatuaren auréan
arkitzean.

Nere Eroslea, sakramentu ontan ziñez arkitzen zerala sinisten det; biotz guziz maite zaitut.

Gaxo batentzat Elizakoak eramaten ikustean.

Zu zera Kristo,
Jainkoaren semea;
gaxo arkitzen dan
zure mendekoa be-

gira zazu, ta gure
azken-garayan zu-
re gorputz santua ar-
tzea iritxi zaiguzu.

*Aita gurea, Agur Maria ta
Gloria*

Lanen bati asiera ematean.

Jauna, zure aintza-
rako ta nere peka-
tuen barkapenerako
lan au eskeintzen di-
zut.

*Aita gurea, Agur Maria ta
Gloria.*

Erlejuak ordua jotzean.

Nere Jauna, nitzaz

eŕuki zaite, eta bildur santuan bizi eta il nadila egizu.

Pekatuan erortzeko zorian
arkitzean.

Nere Jauna, neri laguntzera atoz: pekatuan erori ez nadin, zaindu nazazu. Ala izan dedila.

Pekatuan erortzen danean.

Nere Jauna, nitzaz eŕuki zaite: biotz guziz damu det zuri

kalte egiña, eta zure laguntzaz pekatuan ez geyago erortzea eta gaiztakeri guzie-tatik aldentzea es-kaintzen dizut.

Ondoezik arkitzen danean.

Nere Jauna, gaitz ontan lagundi zai-dazu, eta zuk nai de-zuna egin bedi.

Norbaitek gaitz egin digunean.

Nere Jauna, nik barkatzen diot eta

zure maitetasunagatik biotz guziz maite det: artzaz eta nitzaz eŕuki zaite.

Mayaren bedeinkapena.

Jauna, artzera goazen janaria bedeinka zazu, ta bear adiña artu dezagula egizu, zure gogo santua egiteko. Jesusukristo gure Jaunaren izenean.

Zeruko argi berria.—2.

Bazkalondoan Jaunari eman
bear zaizkan eskeŕak.

Jauna, artu ditu-
gun janariakgatik
eskeŕak ematen diz-
kitzugu; geyegirik e-
gin ba-degu barka
zaiguzu, ta animen
betiko janaria izan
zaite. Alaxen.

Ezkilak jotzean.

Jaunaren Ainge-
ruak Maria'ri berí
ona eman zion:

Eta Espiritu San-tuaren egitez aurdun arkitu zan.

Agur Maria.

Ona emen Jauna-ren mirabea:

Egin bedi nigan zuk diozun bezela.

Agur Maria.

Jaungoikoaren Se-meagizon egin zan:

Eta gure artean bizi izan zan.

Agur Maria.

Otoitza.

Jauna, laguntza iguzu, aingeruak adierazirik Jesukristo'ren gizontzea ezagutu degunok, zure neke eta gurutzearen bidez betiko zerua iritxi dezagula. Jesukristo gure Jaunaren izanean. Alaxen.

Ama Birjiñaren aguŕa.

Agur, Maria, Jainko Aitaren Alaba.

Agur, Maria, Jainko
Semearen Ama. A-
gur, Maria, Espiritu
Santu Jainkoaren e-
maztea. Agur Maria,
Irukoitz txit santua-
ren Eliz ta babes-to-
kia. Agur, Maria,
sortzetik garbia.

Alaxen.

Oeratzean.

Jauna, nere anima
zure eskuetan ipin-
tzen det; pekatutik e-

ta bat-batetan iltze-tik gorde nazazu.

Maria txit Santuari otoitza.



Maria biotz biguña, pekatarien babesia; zure laguntza eskatzen dizugu: gaitz guzietatik zure magalean babes gaitzazu Ama biguña. Jainkoarekin pakreak egin arte gure

alde beti eskatu eza-
zu.



Pekatarien
ordez il ziñan
Jaungoiko bi-
ziaren seme
Jesus eŕukitsua! ta
nolako eriotza!... gu-
rutze batean, eta bi
lapuŕen erdian. Biotz
guziak, onak ba-dira
maitatu bear zaituz-
te!

Jesus'en Jainkozko Biotzari
otoitza.



Jesus'en
biotz bigu-
ña! Betiko
Aitak ager-
tu zigun gu-
re otoitzak
beti entzungo zituala
esanez: *Nere maite*
Jesus'en biotzari es-
ka zayozu; biotz o-
negatik entzungo di-
zut, eta eskatzen de-
zun guzia eskuratu-

kodezu. Nik zure bitartekotasunaz nai nukeana iristeko, nerre eskari guziak betiko Aitariegiten dizkat. O Jesus' en biotza! Nere eskariak eskuratu zaizkida-tzu, Jainkoaren aintzarako eta nere animaren onerako badira. Alaxen.

Eŕoke Santuari Otoitza.



Jainkoak
ainbeste la-
gundu dizun
Santua! Zure
ontasun aun-
di eta irazekiagatik
izuŕiaren auŕez gure
bitarteko aizan zaite,
gaitz ikaragaŕi ori
gugandik aldendu
dedin, eta bera gabe
gu ta gure etxekoak
arkitu gaitezzen. Zure

oñetan belaunikatu-
rik eskatzen dizugu...
Gure besoak Zuri
luzatzen dizkitzugu...
gutzaz eŕuki zaite...
lagun zaiguzu!

Aingeru Zaintzale Santuari
Otoitza.



Jauna,
jakintasun
aundiz gure
laguntzara-
ko aingeru-
ak ipiñi zinduan. Ne-

ri ipiñiak beti lagundi dagidan laguntza indazu. Jesukristo'ren irabazpenakgatik. Ala izan dedila.

Izeneko Santuari Otoitza.

Zeruan Jaungoi-koarekin arkitzen zे-ran santu zoriontsua, zure izena zi-kindu ez dezadan, Jaunaren auŕean nitzaz oroitu zaite, eta zu iritxi ziñan kaye-

ra iristea irabazi ta
zuk iritxi dezun gu-
zizko zorion ori izan
dezadan. Alaxen.

Purgatorioko animen aldez
Otoitza

Jesus biotz bigu-
ña, ildakoen animai
begi onez begira za-
yezu. Zure odol ede-
ŕa ixuriaaz eta guru-
tzeako miñak artuaz
oegatik il ziñalako.
Alaxen.



Jose Santuari Otoitza.

Zorioneko Jose,
Birjiñen eŕegiñaren
senar berdingabea!
nere aita, nere lagun
ta nere ibileren zu-
zentzale izan zaite;
zureen antzera egi-
zu, nere egikera gu-

ziak Jaungoikoaren gorapenarako, nere pekatuen barkape- nerako ta Jesus eta Maria'ren biotz gar- bien kaltez egin di- ran gauzak ordain- tzeko izan ditezela; nere biziaren egun guzietan eta batez ere azkeneko gara- yan lagun zaidazu.

Karmen'go Ama Birjiñari
Otoitza.



Nere Jaun-
goikoa! zure
aitorle zorion-
eko Simeon'
en eskariaga-
tik, eta zure seme Je-
sukristo'ren Ama-
ren bidez Karmelo
mendiko Lagundiari
esker aundi eder bat
eman ziozuna: San-
tu ořen ta Birjiñaren

bitartez, zu maitatzen zaituztenak iristen duten betiko zoriona iritxi dezagula egin ezazu. Au guzia gure Jaun Jesukristo'ren irabazien bidez zurekin beti bizi- tzeko eskatzen dizugu. Alaxen.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Sinispen, Itxadopen ta Maite-tasun Egintzak.

Nere Jaungoikoa!

Zeruko argi berria.—3.

Egi bera zeralako
zugan sinisten det.
Guziz ona zeralako,
zugan itxogiten det.

Neuŕi gabe ona ta
maitagaría zeralako,
gauza guztiak baño
geyago maite zaitut.


Zure maitetasu-
nagatik nere urko la-
guna nere burua be-
zela maite det. Ala-
xen.

Padua'ko Antonio Santuari
Otoitza.



Gure aita
Antonio San-
tuari, beremai-
tatzaleak gal-
du dituzten gauzak
arkitzeko eskeŕa e-
man ziñiozun Jaun
ta Jaungoikoa, san-
tu zoriontsu oni ain-
beste lagundu ziñio-
zulako eskeŕak e-
maten dizkitzut, ta

bere bitartez peka-
tuan ez erortzeko,
zure erakusketak ja-
ŕaitzeko, zure lagun-
tza ez galtzeko, ta
zorigaitzean galtzen
badet, lenbailen ira-
bazteko zeruko argi
doatsua eskatzen
dizut.



Meza Santua bear bezela entzuteko era


Apaiza aldarera dijoanean.

Adierazten du baratzako otoitza.

Aitaren + Semearen + eta Espiritu Santuaren izenean. + Alaxen.

Nere Jesukristo Jaun eta Jaungoikoa: Zuk otoi egin zenduen Jetsemani'ko baratzan Betiko Aitari eskatuaz Pasioko neke oñazeak albait zu samindu gabe igaro zitezela, eta

Aren gogora jartzen ziñala, esanaz: Jau-na, zure maitatzale apal-apala neke guz-tiak gogo onez era-mateko laguntza es-katzerat natorkizu; ta ez nuke nai iñolaz nere gogoa egitea, baizikan zurea ba-kařik.



Aitorpenean.

Adierazten du Kristo bere arpegiaren
gañean odola ixuriaz erori zala.

Meza entzuten dagoanak esango du: NI PE-
KATARIA....

Nere Jaungoikoa,
zure lege Santuak
ausi ditudala iku-
siaz, nastua talotsa-
tua arkitzen naiz.
Jauna, bear bada,
nere aragiak gogo
onez artu nai ez
ařen, pekatuen bar-
kapenarako neke ta-
lanak bidaldu zaiz-
kidazu.



ЛМ-

ДЕГЕРЫ

Introitoan.


Adierazten du Kristo Anas'en etxera
eraman eta masaleko bat eman ziotela.

Jesus maitea, ne-
re buruaren gauz
okeŕak bear bezela
eramateko, eta urko
lagunaren iraňak
barkatzeko, zuk izan
zenduen eramanki-
zunaren antzeko bat,
eskatzen dizut.



SEBERRY

LM



Kirieleisonean.

Adierazten du Kristo eraman zutela
Kaifas'en etxera ta Pedro'k
an ukatu zuala.

Iguzu, Jauna, mun-
du onetan bizitzeko
laguntza, beti zu mai-
tatuaz, gero betiko
zoriona irabazi de-
zagun.



Gloria in excelsis'ean.

Adierazten digu Jesus'en jayotzan
kantatzen zutela Aingeru
ta Goiaingeruak.

Kantatu dezatela,
nere Jaungoikoa, zu-
re zoriona zeruan
aingeruak: ta mundu
onetako gizon gu-
ziak goratu dezatela
zure izen deuna.



Epistolari.

Adierazten du Kristo Pilatos'engana
eraman zutela.

Nere aita ta Jaun-
goikoa, zure ikasle-
en erakusketaz nere
adimena zoŕoztu ta
nere biotz iŕla berotu
nai nuke.

ribalts(rnd3)

Zeruko argi berria.—4.



Ebanjelioan.

Adierazten du Kristo'z Herodes'ek
par egin ondoren Pilatos'enera
eraman zutela

Iguzu, Jauna, men-
diak ibiltzen dituan
sinismena, ta onen
alde egon eta atera-
tzeko bear dan bio-
tza: ta orain iñoiiz
baño geyago Eliz
Ama Santua ta zure
etsayen auŕean.



Credoan.

Adierazten du Ebanjeliotik atera bear
degun irakasbidea.

Meza entzuten daudenak ezango dute:

Nik sinisten det
Jaungoiko Aita; Jaun-
goiko Seme eta
Jaungoiko Espiritu
Santuagan, iru per-
sona bañan egizko
Jaungoiko bat, gau-
za on guzien ema-
lea.



Eskeintzan.

Adierazten du Jesukristo iltzera
eskeñi zala.

Aita zerutar biotz
biguña, ar zazu a-
paizak eskeintzen
dizkizun osti garbita
osasunezko kaliza-
rekin batean zuk zu-
retzat egin zenduan
nere biotza: bera nik
gogoz eman dizut
zurea dalako.



Eskuak garbitzean.

Adierazten du Pilatos'ek eskuak
garbitu zituala.

Garbitu nazazu,
nere Salbatzalea,
garbitu nazazu ge-
yago oker guzieta-
tik, eta zuzendu itza-
tzu nere ibilerak da-
mutasunaren bide
garbitik.



Orate fratres eta Prefazioan.

A dierazten du Pilatos'ek eñiari
Kristo erakutsirik esan zuela
«*Ecce Homo*», Ona emen
gizona.

Eskatu ezazu nere aldez, gure Eros-
learen ama ona; es-
katu ezazu nere al-
dez, zeruan arkitzen
zeraten zoriondu-
nak, artarako gara-
ya iristen danean
betiko zoriona ira-
bazi dezadan.



Bizi diranen aldez apaizak
eskatzen duanean.

Adierazten du Jesus iltzea
erabaki zutela.

Oroi zaite, nere
Jaungoikoa, nik
dauzkadan bear gu-
ziak, nik baño obe-
to ezagutzen dituzu-
lako eta zure biotz
on ta zure indaŕaz
zuzendu zaizkidazu.
Oroi zaite, gañera,
nere antzera zure
eŕukitasunaren zai
dauden beste askoz.



Ostia jasotzean.

Adierazten du Kristo gurutzean
goratuā izan zala.

Orain egiz eta be-
netan nere auŕean
zauden nere Jaun-
goikoa! Maitatzen
zaitut ontzi santu oŕ-
etan, eta nai nuke
mundu guziak Zu
alaxen maitatzea.



Kaliza jasotzean.

Adierazten du Kristo'ren zañetatik ixuri zan odola.

Betiko bizitza ematen duen odolean, orain egiz eta bentean nere auŕean zauden nere Jaungoi-koa! Maitatzen zaitut ontzi santu ortan eta nai nuke mundu guziak Zu onelaxen maitatzea.

TSBLS NSGABL ZERIBIA.

NSGABL NSGABL


Zeruko argi berria.—5.



Apaizak ildakoen aldez
eskatzen duanean.

Adierazten du Kristo'k gu guzior al-dez eskatzea duela.

Begira zayezu
Jauna, begi onez zu-
re maitatzale izan zi-
ran eta mundu onta-
ko bizi labuŕa galdu
zutenen animai, ta e-
men egin zituzten
gaitz ta pekatuagatik
gaur oñazez beterik
garbitzen arkitzen
diranai.



EBERHARD

Pater noster'ean.

Adierazten ditu Kristo'k gurutzean
esan zituan zazpi itzak.

Meza entzuten daudenak esango dute: **AITA GUREA.**

Jaungoiko eŕuki-tsua, zeruetan zauden gure Aita, lagundu zaidazu zure izena beti gogoratu ta zure gogoz betetzeko.



Ostia ebakitzean.

Adierazten du Kristo gurutzean
il zala.

Linbora jetxiaz,
urte askotan zure
zai zeuden Guraso
Santuak poztu ziñi-
tuan Jesukristo Jau-
na: poztu ezazu ne-
re gogoa zeruan ae-
kin batean izateko.
Alaxen.



Agnus Dei esatean.

Adierazten du Kristo gurutziltzatu
zutenetik asko beren pekatuz
damutu zirala.

Nik eskatzen diot
Jaungoikoari nere
pekatuen barkape-
na ta eskeintzen diot
auŕerontzean okerík
ez geyago egitea.



Jauna-artzean.

Adierazten du Kristo lurperatu
zutela.

Ba-dakit Jauna
zein utsa naizen ne-
re bulaŕean zu ar-
tze; bañan, naizen
bezela zurea naiz,
Jauna, eta zuri es-
keintzen naitzazu.


Nere, Jesus, atoz
nigana, Aita ta Jaun
bat bezela nai zaitut
maitatu-ta.




Apaizak bedeinkapena
ematean.

Adierazten du Espiritu Santua-
ren etoŕea.

Aita Jaungoikoa-
ren bedeinkapena,
eta onen bidez Se-
me Jaungoikoaren
naitasuna ta Espiri-
tu Santuaren eske-
ŕak gugana jetxi di-
tezela. Alaxen.



Azkeneko Ebanjelioan.



Adierazten ditu Kristo'ren Jainko-tasunezko ta gizatasunezko misterioak.

Jesus ona! Zure Jainkotasunezko misterioen izenean eskatzen dizut ez nazazula utzi, betiko zoriona iritxi dezan. Alaxen.

Mezaren eskeintza.

Artu ezazu, irukoitz guztiz santua, Jesusukristo, nere Jaunaren gorputz eta ooldaren eskeintz au. Bere eriotzaren oroiipenean eskeintzen dizut nere pekatu guzien barkapenerako eta garbitokian dau-denak lenbailen zerruratu ditezen. Ala izan dedila.



MEZA SANTUAREN ONDORENGO OTOITZA.

XIII'garén Leon Aita Santuaren aginduz 300 barkapen dituzte.

Erezatzen dira iru Agur Maria ta Salbe bat.

Eskubide guziak
dauzkazun Jaungoiko guziz altsua, es-
katzen dizun eři oni
arpegi onez begira

Zeruko argi berria.—6.

zayozu, eta ama Bir-
jiñ txit garbi Jesus'
en ama, bere senar
doatsu Jose santi-
tua, Pedro ta Pablo
apostolo doatsuen
eta Santu guzien
bitartekotasunez en-
tzun itzazu eŕuki
aundiz zure oñetan
pekatari guzien biur-
penenerako ta gure
Eliz Ama Santuaren
zorionerako ipintzen
ditugun gure eska-

riak. Kristo gure Jau-naren bidez. Ala izan dedila.

Migel Goi-ainge-rua, zaindu gaitzazu ta etsayaren eraso-aldein auréan gure laguntzale izan zaite; Jainkoak menderatu dezala, au da gure eskaera labuŕa; eta zuk zerutar guda-rien burua, inpernue-tara saŕ itzazu gu-re animen galpena-

ren bila beti dabil-
tzan Satanas eta be-
re lagun gaiztoak.
Ala izan dedila.

v. Jesus'en Biotz guziz doatsua.

R. Gutzaz efükia izan zazu.





GURE AMA BIRJIÑAREN KANTAK.

(Lukas Santua I.)

Magnificat anima mea.

- I. Nere gogoak
Jauna goratzen du.
- II. Eta nere gogo-
ak, Jauna nere jabea-
rengan atsegin izan
zuan.

III. Bere mirabe txikitasuna begiratu zualako, ta oraindik bedeinkatua esango didate gizaldi guziak.

IV. Gauza aundiak egin dizkidalako altsua danak eta Santua bere izena.

V. Eta bere eŕukia gizaldirik gizaldi, berari beldur dutenen gañean.

VI. Al erakuspena egin zuan bere be-

soaz: aŕoak ixuri zituan beren biotzaren asmotik.

VII. Altsuak beren tokitik kendu zituan, eta goratu zituan txikiak.

VIII. Gosetiak ondasunez bete zituan, eta aberatsak utsita utzi zituan.

IX. Israel, bere eŕia, artu zuan, bere eŕukia oroiturik.

X. Berak itz egin

zuan bezela gure a-sabai, Abraham'i ta beren ondoregoai edo noiz.

Aitari, eta Semeari eta Espiritu Santuari lenendik zan bezela orain eta betikotasun guzian Gloria. Alaxen.






GURUTZE-BIDE edo Kalbarioko jarduera santua

Gurutze santuaren...

Nere Jesukristo Jauna...

GOGAMENA.

Gurutze-bide ontan zabiltzatenak! begira zazute bide au Jaungoikoak animai bialtzen dizkaten gurutzez betea dagoela, bañan ala ere ez zaitezuela ikaratu. Jesus'en oñazeak oroituaaz bide oni jaŕaitu, eta betiko zerua iritxi-ko dezute. Alaxen!



LENBIZIKO GELDIALDIA
Jesus gurutzean iltzea era-
baki dute.

V. Kristo maitatzen, eta be-deinkatzen zaitugu.

R. Zure gurutze Santuaren bidez mundua erosi zenduelako.

Eskatzen dizut, nere

Jauna, zure ontasunaren izenez bada berarekin egon ziñan zutik burni ta katez beterik Epailearen auŕean, oñen epai gogoŕaren zai. Iguzu laguntza zure begien auŕean bildur gabe egun batean agertu, ta zeruko atsegiñetan arkitzea. Alaxen.

Geldialdi ontan gogorapena jarri zazu.

Gero esango dezu:—Jauna: Zuri kalte egiña damu det; nitzaz eta pekatari guzietzaz errukia itzazu. Bedeinkatuak eta goratuak izan bitez Jesukristo gure Jaunaren nekaldi ta eriotza eta gure Ama Andre Maria txit Santuaren onizazeak. Alaxen.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.




BIGAREN GELDIALDIA Jesus gurutzearekin.

Kristo, maitatzen...

Judařen gaizki esanak eta Pilatos'ek emanako gurutzea zu-

re sorbaldetan artzeko eramankizuna izan zenduen Jesukristo nere Jauna: nere etsayen gaizki esan eta egiñak ondo eramateko, ta oek gaitzez ez ordaintzeko indarra eman zaidazu. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea, eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



IRUGAŘEN GELDIALDIA
Erori zan Jesus lenbiziko
aldiz.

Kristo, maitaizen...

Jesukristo nere Jauna,
gurutzearen egurtzaŕa
zure sorbalda minbe-

ratuen gañean lúrera eroriaz, baño ostera jekiaz, eraman zenduen bezela, nai nuke nik ere munduko zorigaitz eta lanbide gogoŕen gurutzea zure antzera alai eraman, gero betiko zorian zure gurutze santuaren zorion ederak izateko. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea, eta gañerakoak lenbiziiko geldialdian bezela.



LAUGAREN GELDIALDIA
Ama-semeak alkar arkitzen
dute.

Kristo, maitatzen...

Ama maitea! gurutze
aztunaz zamatua ta bu-
rutik ixuritzen zitzayon

odolez arpegia estalita
zure seme Jesus ikusi-
rik igaro zinduen sa-
mintasunagatik, ařent!
nere pekatuai dařaiten
gaitz guzia ezagutzea
iritxi zaidazu, ori eza-
gutuaz ta biotzez zi-
ñez negar egiñaz, arki
nadin noizbait Semea-
ren ta zure aldame-
nean betiko zorian.

Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea,
eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.



BOSGARÉN GELDIALDIA


Zirineok laguntzen dio.

kristo, maitatzen...

Zure ikasbide eta e-gipen onen bidez guru-tze aztuna eramaten e-

rakutsi ziñiguzun Jesus maitea: gurutzearen bidea nekez bada ere ondo jaŕaitzeko eta gaurtik beste gauzik ez goratzeko laguntza iguzu. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea eta gañerakoak lenbiziko geldialdian bezela.



SEIGA'REN GELDIALDIA
Emen arkitu zuen Beronika.


Kristo, maitatzen...

Jesukristo nere Jauna,
zure biotz on ta naita-
sun aundi ta irazekiaren

izenean eskatzen dizut,
ezaŕi zaidazula nere
animaren baŕenen zu-
re arpegi eder oŕen iru-
dia, zu beti maitatuaz
zoriona irabazteko.

Alaxen.

Jauna, pekatu egin det. — Aita gurea,
eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.



ZAZPIGA'REN GELDIALDIA
Biga'ren aldiz Jesus emen
erori zan.


Kristo, maitatzen...

Jesus maitea, azken-
gabeko zure ontasuna-
ren izenez eskatzen di-

zut eraman gaitzazula zoriko aingeru eta Santuen aldamenera, eta zure gurutzearen aztuntasuna ezagun-arazirik, argi dezazula nere adimena, oker ta pekatu guzien gaitza ezagutze-ko, ta oetzaz egizko penitentzia egiteko.

Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



ZORTZIGAREN GELDIALDIA


Jesus'ek itz egin zuen Jerusalen'go alabakin.

Kristo, maitatzen...

Kalbario'ko bidean
naigabe ezin andiagoa-
rekin zijoazenean, ne-

kealdiko ikasbidea galdu etzezaten, an irten zitzaizkizun emakumeai nola ta zergatik negar egin erakutsi ziñien Je-sukristo nere Jauna: zuzendu itzatzu gure egipen guziak zure a-diskidetasun eta zo-riona iristeko. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita, gurea, eta gañerakoak lenbiziko geldialdian bezela.



BEDERATZIGA'REN GELDIALDIA
Iruga'ren aldiz Jesus lu'rera
erori zan.

Kristo, maitatzen...

Zure nekaldi eta erio-tzaz arindurik guru-tzearen aztuntasuna, au

eramangaři egin zen-
duen Jesus nere anima-
ren Eroslea! ipiñi zazu
gure biotzetan guru-
tzeaganako zaletasuna,
beste gauzik ez maita-
tzeko, ezpada Zu, Jesus
gurutziltzatua, Aita ta
Espíritu Santuarekin
bizi ta betikoz agintzen
dezuna. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea,
eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.



AMARGAREN GELDIALDIA
Emen kendu ziozkaten so-
ñekoak.


Kristo, maitatzen...

Jesukristo gure Jau-
na, gurutzean artu zen-
duen oñazeagatik, eta

beazunez nastutako ardoa ematean eraman-arazi zizutenagatik, argitu gaitzazu zure laguntzaren bidez; eta gurutzean arkitzen diran ondasunak ezagutuaz, ta beti bide zuzen au jaŕaituaz, irabazi dezagula betiko zoriona.

Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea, eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



AMAIKAGAREN GELDIALDIA
Emen gurutziltzatua izan zan.

Kristo maitatzen...

Gurutzean zintzilik
zure ezur guzik an zen-
batetu zitezkela, oñaze

gogoŕaz ainbeste era-
man zenduen Jesus ne-
re maitea: egizu nere
gorputz eta animaren
indar eta onbide guziak
zure gorapenerako i-
zan ditezela; eta iltze
gogoŕez nere naitasu-
nez josia izan ziñanez-
kero, josi nazazu zure
laguntza santuan, gero
zurekin zeruan izateko.

Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea,
eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.



AMABIGAREN GELDIALDIA
Emen il zan Salbatzalea.

Kristo, maitatzen...

Jesukristo nere Jau-
na, zu igo ziñan guru-
tzera zeru-luretako on-

dasun guziak neri eman, ta gizonen biotzak zerganatzeko. Eraman za-zu bada nere biotza zu-re ondoren; eta egizu zu besterik maitatu ez dezala, mundua bere aŕokeri ta zorakeriakin gorotatuaz, onela betiko zoriona iristeko.

Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



AMAIRUGAREN GELDIALDIA


Emen jetxi zuten gurutzetik.

Kristo, maitatzen...

Oñazez betetako Ama Birjiña! ikusi nai izan zendun jeisten gu-

rutzetik zure seme Jesus' en gorputz ilà odo-
lez itsusitua, burutik o-
ñetara zauri bat egiñik,
ikusketa mingaři onek
zure biotzaren samin
guziak beritzen zituela:
egizu, nere Ama, emen-
dik auřera beti pentsatu
dezadala Jesukristo'
gan. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea,
eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.



AMALAUGAREN GELDIALDIA

Jesus lurperatzen dute.

Kristo, maitatzen...

Ama biotz biguña!
itsasoa bezin aundia
zan zure biotzaren nai-

gabea zure seme maite Jesus'en gorputz ilā obian sartzen ikusi zenduenean! Naigabe-tutako Ama! Nork poz-tuko du zure biotz ilun-dua, ta nork arinduko ditu zure naigabeak, mundu ontan ez badago iñor ere Jesus'en eriotzan kulpik izan ez zuenik? Urtu dedila ne-re biotza negar-malko miñetan, egin ditun gaiztakeriakgatik; eta bizitz ontan izan zin-duen oñazeak beti go-

goan edukiaz, iritxi dezadala zure aldame-nean betiko zorionean gero egotea. Alaxen.

Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea, eta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



AITORTZE TA JAUNARTZEKO
SAKRAMENTUAK

bear bezela artzeko bidea.

Aitorpenerako laguntza eskatzeko
otoitza.

Pekatariari bar-
katzeako beti gertu
zauden nere Jaun-
goiko maitea: bere
utsegitien kutsuak
garbitzeako Peniten-

tziko ur osasunga-
ŕiak arkitu nayaz,
gogo onez beterik
zugana datorén ani-
ma oni, begiratu za-
yozu.

Egizu nere Jaun-
goiko maitea! ni oe-
tara bear bezela uŕe-
ratzea; argitu zaida-
zu anima, nere pe-
katu guziak garbi
ezagutzeako: piztu e-
zazu nere biotza be-
ŕiz ez erortzeako, eta

erabili itzazu nere
ezpañak ondo aitor-
tzeako, guzien barka-
pena onela eskuratu
dezadan.

Pekatuen gogoratzea.

Ikusi auŕena lena-
go egin diran aitor-
penetan pekaturen
bat utzi ote dan, as-
mo gaizto edo lo-
tsez, edo esatea az-
tu dalako.

Ikusi, pekatua aunda edo laría zalako, aitorleari berak ondo ez aditzeko eran esan oteziozun.

Ikusi, lengo aitorpeneko penitentzia bete zenduan.

Ikusi, pekatuan ez erortzeko alegin guzia jaři dezun.

Gauz oiek guziak bear dira argi eta garbi esan aitorpen ona egin nai bada,

eta ez da pekatuen gogoratzea azkenengo aitorpenetik egin bear, baizikan lenagokoetan ere esangabe zerbait utzi ote dan ikusi bear da.

AGINDUAK.

I. Goizeko eta gabeko otoitzak bear diran bezela edo zalapartan, zer egiten

nuen gogoratu gabe
eŕezatu al ditut?

—Gauza santu edo
onai izeka eta paŕa
egin al diet?

—Irukurgai txar ak
iraku i al ditut?

II. Jaungoiko edo
Santuen kaltez bir-
aorik esan, edogaiz-
ki itzegin al det?

III. Jai egunean lan
egin al det? Meze-
tara uts egin ote
det edo joan naize-

nean ajola gabe e-gon al naiz? Itz edo pařik egin al det on-do entzutea besteri eragotziaz?

IV. Nere aita, mai-su edo besteri begirapena galdu ote diot? Par egin edo erantzute txarén bat eman al diet? Zařak bear bezela begiratu al ditut?

V. Nere izakera gaiztoagatik nere a-

nai edo lagunakin
aserátu al naiz?

—Gaitzik egin al-
diet, beren kaltez
gezuŕetan gaizki e-
saka edo salatu al
ditut kastigatzeaga-
tik?

VI. ta IX. Gogo
asmo gaiztorik izan,
edo irudi edo gau-
za lotsagaŕirik ikusi
al det? Kantatu, edo
entzun ote ditut po-
zik kanta gaizto,

zíkin eta lasayak?

VII. Nere gurasoai
edo lagunai dirurik
ostu al diotet? Zen-
bat edo zer gauza
eta zenbat bider?
Bere jabeari, nor zan
jakiñaz, arkitu nuen
eman al diot?

VIII. Gezuřik esa-
ten ote det? Esan al
det bateren bat bes-
teren kaltez?

Besterengatik gaiz-
ki esan al det? Oker

oek guztiak esan
bear dira argi ta
garbi.

Aitortzeko bidea.

Aitorlearen zai
zauden bitartean, Si-
nispen, Itxodopen,
eta Maitetasunezko
Egintzak egiñaz, zu-
re pekatuak oroituaz
egon bear dezu; ge-
ro esan zazu *Ni pe-*
kataria, eta asiera

emango diozu aitorpenari esanaz:

Agur Maria guziz garbia: Onenbeste egun, aste edo ilabete dira aitortu nitza-la, orduko peniten-tzia bete nuen; pe-katuen gogoratzea egin det; eta nere bi-ziera zuzentzeako as-moa badakart.

Lenengo agin-duan egin det onela-ko eta alako peka-

tu... eta onela aitor-
tuko dira beste pe-
katu guziak.

Pekatuak ondo ezagutzeko argia
Jaungoikoari eskatzeko
OTOITZA.

Jauna, nere pekatu
eta gaiztakerien aun-
ditasuna ezagutzen
det, eta oen barka-
pena, eta sendagai
edo zuzenbidea es-
katzen dizut. Peka-
turako daukadan

griñá gaizto eta indartsua zuzendu ezazu, Jaungoiko guztiz altsua! zure naitasunaren bidez egin ezazu nere egorik onenak galtzen dituen nere árokeri ta nerekotasuna utzi dezadala; eta naitasun orek nere biotzean indaŕ aundiak artu ditzala. Jauna, argaltasuna, gezuŕa eta pekatua besterik

ez dago nigan; bera-gatik, zure Semearen eriotz eta egite on guzien izenean pekatu guzien bar-kapena eta egizko penitentzi batez oek zuzentzeako laguntza biotz-biozetik eska-tzen dizut.

Otoitz au azkendu ondoren esango da, *Ni pekataria.* .



Aitorpen ondorengo otoitza.

Nere Jauna! pekatu guziak barkatu eta betiko eriotzatik gordetzen nazula nitzaz izan dezun erukia, beti eskertuko dizut. Nere animak orain eta beti bedeinkatuko zaitu eta egin diozkazun laguntzak beñere ez ditu aztuko. Nitzaz izan dezun erukia-

ren ondoren, zure naiera lotua egon bear ez al det? Bergatik, nere animaren Salbatzalea! zure laguntzaren bidez aginduak bear bezela betetzea eskeñi det. Aginduen bidetik jaritzeko, nere biotzaren zure beldurá ezaŕi ezazu; bada on zait nere itxaropena zure gogoan jaŕiaz, zurekin ba-

tean joatea. Jauna, zugandik aldendu ez nadila egizu ta zuzendu nazazu, bide on eta zuzenetik ibiliaz, egunen batean zure etxeko ondasunak irabazteko. Irtxi zadazu Jauna, esker au; etzaidazula ukatu, bada zuk salbatzen dituzu zugan itxaropen dutenak. .

Jaunartze auferako Jaungoiko
gure Jaunari
OTOITZA.

Jaungoiko biotz bi-
guña! Nik banu zu-
tzaz, eskatzen di-
dazun guztia neri
emateko zuk nere-
tzat daukazun mai-
tetasunez! Zure nai-
tasunaren bidez zo-
rion aundi bat zuk e-
man didazu, eta be-
ra zure Semea da:
au artzera nator ne-

re biotzaren naitasun guztiaz gero zu-ri eskeintzeko; onela zure naitasuna ta nere esker ona ber-dintzeko bidea arki-tuaz. Nere Jaungoi-ko! Bidegabekeri-rik geigo ez egiteko, nere anima beregan sar dedila egizu.

Jesukristo gure Jaunari otoitza.

Nere animaren sal-batzalea, gogo aun-

diz nai zaitut artu ne-
re baŕenen, argal ta
gaiztoa ba-naiz ere.
Beragatik garbitu e-
zazu bizitzera zato-
zentoki au, eta kendu
itzazu bertatik zure
begiak igui dituzten
gauzak, eta onela
garbi geldituaz eta
zure laguntzaz gero
eta geyago zabal-
duaz, zure naitasu-
naren aunditasuna
obeto artuko du.

Espiritu Santuari otoitza.

Seme Jaungoikoa
bere baíuan aragiz
jazteko, Ama Birji-
ñaren gorputz eta
anima bear zan be-
zela ipiñi zinduan
Espiritu Santua!
Atoz, sar zaite nere
biotzean, ta Jaungoi-
ko gizon egiña ar-
tzeko nere gorputz
eta anima jaíri itza-
zu.

Apaiza Kopoi ta Ostiaz, Jaunartzera
dijoanaren auéra etortzen danean, au

jasoaz esaten du: *Ecce Agnus Dei,
ecce quitollis peccata mundi:* eta oñek
esan naidu: *Ona nun dezuten Jauna-
ren bildotxa, au da munduko peka-
tuak kentzen dituana.* Orduan Jaunar-
tza era dijoanak esango du:

Aingeruen janari, Osti
bedeinkatua! maitatzen zai-
tut, nere Jaungoiko eta Sal-
batzalea; sinisten eta uste
det nere bular̄ean egiten
dezun egoerak nere biotza
sendatuko duala, eta zure
laguntzaren bidez obetuko
naizela.

Gero biotz-biotzez apaizarekin batean
iru bider esango du:

Nere Jesukristo Jauna, ez
naiz ni gai zu nere etxe kax-
kaŕean sartzeko; bañan
zure itz txit santuaz nere pe-
katuak barkatuak izan bitez,

eta nere anima sendotua ta salbatua.

Jauna artzean, aoz ez baizik biotzez bakarik, esango du:

Nere Jesukristo Jaunaren gorputzak nere anima zaindu ta eraman dezala betiko bizierara. Alaxen.

Jaunartze ondorengo Otoitza.

Kristo'ren anima guztiz santua, ondu nazazu: nere Jesukristo Jaunaren gorputza, zeruratu nazazu: Kristo'ren odol garbia, ase nazazu: Kristo'ren sayetzeko ur garbia, garbi nazazu:

Kristo'renarpegikoizerdi ongaña, sendotu nazazu: Kristo'ren Eŕukizko nekaldia, indartu nazazu: Jesus ona, zaindu nazazu: zure zauren baŕuan ezkutatu nazazu: zugandik aldentzen ez dizadazula utzi; nere eriotzako garayan nere aldez egizu: zugana joateko, Jauna, lagundu zaidazu: ta ipiñi nazazu zure alboan, aingeru, goiaingeru ta santuakin zu or goyen beti goratu eta maitatzeko. Alaxen.

Jaunartze-ondoren eskeŕak emateko,

Tomas santu erakuslearen

OTOITZA.

Aita guzialdun eta
betiko gure Jaungoiko
Jauna! Zure seme bakaŕ
Jesukristo gure Jauna-
ren gorputz eta odol
garbia janaritzat eman
dizkidazulako eskeŕak
ematen dizkitzut, eta au
guztia, ez esker onen
gai arkitu nazulako,
baizik azkengabeko zu-
re eŕukitasunagatik, pe-
katu ta bidegabekeri
asko egin dizkitzudala-

ko. Eskatzen dizut Jau-
nartzetarri au izan dagidala
zure aserea bigundurik,
nere pekatuen barkape-
na iristeko; sinismen
bizia izateko, sinismen
onekin, zure babesan
ipiñiaz, nere asmo gaiz-
toak uzteko; nere gaiz-
takeriak ezereztutzeko;
nere naitasun, eraman-
kizun, apaltasun eta
onbide guziak geyago-
tzekeo; nere etsayen era-
so gogoŕen auŕean la-
gun izateko, zurekin
betiko bat egin nadin

nere Jaungoikoa! ta, azkenik zeruko bide ederra arkitzeko. Baita ere, eskatzen dizut, mundu ontan zure mayean artu nazun bezela, zure matatuentzat beste munduan daukazun mayera ere artu nazazula; an, Seme ta Espiritu Santuaz egizko argia, atsegin osoa ta betiko zoriona zu zeralako.



Jesus'en Jainkozko Biotzari
egitan nai dion biotz baten jarduera.

Ontasun guztien e-gontokia ta esker guztien azkengabeko ituŕi zeran nere Jesusmaitearen Jainkozko biotza! ni oŕenbeste maite izateko nigan zer arkitu dezu? Nigana agertu dezun naitasunak sinistarazten dit nere naitasunez-

ko asmoak ondo artuko dituzula. Artu ezazu, nere Salbatzailea, zure biotz ezin obeari eskeintzeko daukadan gogo bizia. Nik nere biotza, berak daukan asmo guztiak eskeintzendizut, eta oek zurien antzekoak izatea nai det. Emen nago, zure biotz ezin obeari osotoro emana; guzia zurea naiz. ¡Bai aundia dala neretzat daukazun érukitasuna nere biotzaren eskeintza ontzaz artzen dezu-

nean! Emendik auŕera biotz au zurea izango da, ta munduko gauzai tokirik emango ez diet. Zure biotzariegiten diodan eskeintza au, bere naitasunari gaizki erantzunaz oraindaño egin diozkadan bidegabekeriak ordaintzeko da. Nere eskeintza labuŕada, bañan nik eman nezakena, eta berak eskatzent duan guztia ematen diot iñoi ez beriro kentzeko asmoaz.

ARKIBIDEA

	<u>Oriak</u>
Obispo Jaunaren baimena.	7
Kristau onaren goiza.	9
Goizeko otoitza.	10
Aguña.	12
Etxetik ateratzean	12
Elizan sartzean.	12
Ur bedeinkatua artzean.	12
Jesus Sakramentatuaren auréan arkitean.	13
Gaxo batentzat Elizakuak eramaten ikustean.	13
Lanen bati asiera ematean.	14
Erlejuak ordua jotzean.	14
Pekatuan erortzeko zorian arkitzean	15
Pekatuan erortzen danean.	15
Ondoezik arkitzen danean.	16
Norbaitek gaitz egin digunean.	16
Mayaren bedeinkapena.	17
Bazkalondoan Jaunari eman bear zaizkan eskefak.	18

	<u>Oriak</u>
Ezkilak jotzean.	18
Otoitza.	20
Ama Birjiñaren aguña	20
Oeratzean.	21
Maria txit Santuari otoitza.	22
Jesus gure Erosleari otoitza.	23
Jesus'en Jainkozko Biotzari otoitza. .	24
Eŕoke Santuari Otoitza.	26
Aingeru Zaintzaŕe Santuari Otoitza.	27
Izeneko Santuari Otoitza.	28
Purgatorioko animen aldez Otoitza.	29
Jose Santuari Otoitza.	30
Karmengo Ama Birjiñari otoitza. .	32
Sinispen, Itxaropen ta Maitetasun Egintzak.	33
Padua'ko Antonio Santuari Otoitza.	35
Meza Santua bear bezela entzuteko era.	37
Mezaren eskeintza.	80
Meza Santuaren ondorengo otoitza.	81
Gure Ama Birjiñaren kantak.	85
Gurutze-bide edo kalbarioko egipen	

Oriak

Santua.	89
Aitortze ta Jaunartzeko sakramen-	
tuak bear bezela artzeko bidea.	119
Pekatuen gogoratzea.	121
Aginduak.	123
Aitortzeko bidea.	128
Pekatuak ondo ezagutzeko argia	
Jaungoikoari eskatzeko otoitza.	130
Aitorpen ondorengo otoitza.	133
Jaunartze auferako Jaungoiko gure	
Jaunari otoitza.	136
Jesukristo gure Jaunari otoitza.	137
Espiritu Santuari otoitza.	139
Jaunartze ondorengo otoitza.	141
Jaunartze-ondoren eskeŕak emateko,	
Tomas santu erakuslearen otoitza.	143
Jesus'en Jainkozko Biotzari egitan	
nai dion biotz baten jarduera.	146



